

## **OHE ADIMENTSUA- NOVA MAX**

NOVA MAX enpresa sozietate mugatuko enpresa bat da. 4 jabez osatuta dago; Xabier Azqueta (Web-gunearen sortzailea eta giza baliabideen kudeaketa), Asier Castro (Kanpo harremanak), Adriana García (Aurrekontua) eta Hirune Hernandez (Eskaeren kudeaketa, telefono deiak eta gmail-a egunerokotasunean eramatea eta App-a sortzea). Enpresa honek ezarriko duen produktua ohe adimentsu bat da erabiltzen duenari lokartzen eta esnatzen laguntzeko.

Ohe adimentsu honek, hainbat funtzio ditu. Alde batetik, esnatzen laguntzen du. Horretarako ohea altxatu egiten da, alarma edo musika erantsita izango du eta lastairak mugimendua izango du esnatze-prozesua errazagoa izateko. Gainera, ohea bakarrik egingo da aire-kutxaren bitartez.

Lo egiteko, musika jarri dezake bezeroak, mugimendua ere izango du eta ohazala beroa edo hotza jartzeko aukera emango aire-kutxaren bitartez. Ohearen albo batean mahaitxo bat egongo da gauzak uzteko leku batekin, ur-botila uzteko borobil batekin, flexo bat argia emateko, 2 USB/kargagailu eta konfigurazio panel bat funtzio ezberdin batzuk konfiguratu ahal izateko: mugimenduaren intentsitatea, musika bai ala ez jartzea, ohazalaren tenperatura aldatzea, alarma jartzea etb. Panel hau bluetooH bitartez gure app-arekin konektatu eta ohearen funtzioak mugikorretik konfiguratu ahalko dira.

Arestian esan bezala, ohea bakarrik egiteko, aire-kutxa bat erabiliko dugu. Aire-kutxa hau lastairaren behean egongo da. Bere funtzioa ohea egitea eta aire hotza edo beroa botatzea da. Horretarako pantailan botoi bat sakatzerakoan, aire-kutxak manta puztuko du ohea bera bakarrik egin arte.

